

<b>Ardatz estrategikoa:</b>	<b>2. ardatza.- Herritarrekiko elkarrekintza</b>	<b>Proiektua:</b>	<b>2.2. Herritarrekiko elkarrekintza-zerbitzuak</b>
<b>Azpiproiektua:</b>	<b>2.2.1 Web elkarrekintza-eredu berrira egokitzea</b>		
<b>Deskribapenaren laburpena:</b>	Eusko Jaurlaritzaren web atariaren sarea berregituratzea; <i>euskadi.net</i> webgunea edozein pertsonarentzat eta edozein tresnatik erabilgarriagoa eta eskuraerrazagoa egiteko aurrerapausoak ematea; edukien kalitatea bermatzea; ahalik eta gehiena automatizatzea edukien argitalpena, bikoiztutako informazioaren karga saihesten eta webguneko argitalpenean eskuz parte hartzea gutxiagotzen ahaleginduz; herritarrekiko elkarrekintza handiagoa izango duen euskadi.net atarirako aurrerapausoak ematea eta .eus domeinua zabaltzea Eusko Jaurlaritzako sistema informatikoetan		
<b>Helburu orokorrak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarren eskaeran oinarritutako eredu berri baterantz eboluzionatzea</li> <li>• Informazioa gaien eta azpigaien arabera antolatzea</li> <li>• Saitetako webak aldatzea, guztien informazioak egitura bera izan dezan</li> <li>• Web-atariaren sarea .eus domeinu berrira egokitzea</li> <li>• Erabiltzaileen esperientzia hobetzea</li> <li>• Webaren erabilera areagotzea, edozein gailu erabiliz</li> <li>• Web bidezko elkarrekintza indartzea</li> </ul>		<b>Helburu operatiboak:</b>
			<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarren gogobetetasuna, 10etik 8koa 2016ko gogobetetze-inkesta</li> </ul>
<b>Egikaritzea:</b>	<p><b>1. helburua:</b> Herritarren eskaeretan oinarrituriko eredia</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eusko Jaurlaritzako Euskadi.eus webgunerako eta sailetako atarietarako prestatutako orrialdeak, herritarren eskariaren arabekoak. Horretarako, Euskadi.eus-eko bisitei eta Zuzenean zerbitzuan telefonikoki eta presentzialki jasotako kontsultei buruzko informazioa erabiltzen da, herritarrek gehien eskatzen dituzten zerbitzu eta edukiak antzematen baitira.</li> </ul> <p><b>2. helburua:</b> Informazioa gaien eta azpigaien arabera antolatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Antolatuta dago gai eta azpigaien arabeko informazioa, herritarren eskaeretan oinarrituta, baina jarraipena egin behar da berriz definitzeko, edo ikusten diren beharrianen arabera egokitzeko.</li> </ul> <p><b>3. helburua:</b> Saitetako webak aldatzea, guztien informazioak egitura bera izan dezan</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sailen web atariak egokitu dira, herritarrentzat berdinak eta Eusko Jaurlaritzaren bereizgarriak izan daitezten.</li> <li>• 2016an, 3 sailetako orrialde guztiak (azpiatariak eta barneko orrialdeak) migratu eta argitaratu dira:             <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lehendakaritza</li> <li>2. Gobernantza Publikoa eta Autogobernua</li> <li>3. Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa</li> </ol> </li> <li>• 2016an, orrialdeak migratu dira (azpiatariak eta barneko orrialdeak), eta bakarrik falta dira hiru sail hauetako azken argitalpenak (2017ko urtarrilerako dago aurreikusita):</li> </ul>		

1. Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak
  2. Ogasuna eta Ekonomia
  3. Kultura eta Hizkuntza politika
- 2016an, lau sailletako orrialdeak migrazio-prozesuan daude (azpiatariak eta barneko orrialdeak), eta horien argitalpena 2017rako dago aurreikusita:
    1. Enplegu eta Gizarte Politikak
    2. Lana eta Justizia
    3. Segurtasuna
    4. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza
  - 2016an, Osasun eta Hezkuntza sailletako orrialdeak (azpiatariak eta barneko orrialdeak) migratzeari ekin zaio, eta prozesuan daude oraindik; kontuan hartuta bi sail horien bolumena, konplexutasuna eta ezaugarri bereziak, lan horren azken argitalpena 2017ko maiatzetik harago atzeratuko dela aurreikusten da.
 

**4. helburua:** Web-atarien sarea .eus domeinu berrira egokitzea

    - Atarien sarea .eus domeinu berrira egokituta dago, eta bakarrik falta da zenbait blog eta aplikazio migratzea. Sailen erantzukizuna da.

**5. helburua:** Arreta hobetzea eta erantzun-denborak murriztea

    - Sailen migrazioa bukatu ondoren, Euskadi.eus berriari buruzko inkesta bat egitea aurreikusten da.

**6. helburua:** Webaren erabilera areagotzea, edozein gailu erabiliz

    - Premia horri erantzuteko responsive web design erabili da: aurrerapena, ikus 1 eta 3 puntuak. Euskadi.euseko 2015eko (Euskadi.eus berria argitaratu aurrekoa) eta 2016ko datu estatistikoak konparatuta, ikusten da mugikor bidezko nabigazioa %8 areagotu dela, eta mahaigaineko gailuen bidezkoa, berriz, %8 jaitsi dela.

**7. helburua:** Web bidezko elkarrekintza indartzea

    - Aurreko helburu guztiak herritarrekiko elkarrekintza sustatzera bideratuta daude. Gogobetetze-maila neurtuko da sail guztietako migrazioa bukatu ondoren eta Euskadi.eus berria finkatuta dagoenean.

Arduraduna:	Aldi baterako aurreikuspena:	Egikaritzeko benetako epea:	Egoera:	Balorazioa:
DACIMA	Epea: 4 urte Hasiera: 2014 Amaiera: 2017	Hasiera: 2014 Amaiera:	<input type="checkbox"/> Amaitua <input checked="" type="checkbox"/> <u>Aribidean</u> <input type="checkbox"/> Hasi gabe	<input checked="" type="checkbox"/> <u>Positiboa</u> <input type="checkbox"/> Hala-nolakoa <input type="checkbox"/> Negatiboa

**Oharrak:**